

ELKARRIZKETA •

Miguel Sanchez-Ostiz ^{idazlea}

CRISTINA BERAIN

«Literaturari buruzko nire ikuspegia erradikalizatu egin da»

Aurten, bi liburu berri plazaratu ditu idazle nafar honek: *La flecha del miedo* eta *Derrotero de Pio Baroja*. Beste hainbat proiektu du esku artean. Bere lan berriek hasierakoen ezkortasuna galdu dute. Zozaian du etxea azken bost urteetan, eta Baztango haizeak baretu egin duela onartu du.

Eduarne Elizondo • Iruñea

NAHIZ ETA BAZTAN IZAN ingurune samurrena azken urteetan, Iruñean bildu gara idazle saritu eta emankor honekin.

• ***La flecha del miedo* lanean, literaturari buruz gogoeta egin duzu. Nola aldatu da urteotan literaturari buruzko zure ikuspegia?** Erradikalizatu egin da. Salmentetan inoiz ez dut arrakasta handirik izan, eta, ondorioz, ez dut lan moldaerazik egin beharrik izan. Ez dut deus galtzekorik izan, eta arriskatu egin dut, forman nahiz edukian konpromisoa duten idazlanak osatuz, hizkera berria erabiliz, memorian dudan hizkera alegia. Askok aurpegi-ratu didate ulertzen ez den hizkera erabili izana, baina hemengo hizkera da, eta horrek, nire ustez, literatura aberastu egiten du. Hasieran lotsati samarra nintzen, eta hala-koak ziren nire liburuak ere; urte asko behar izan ditut orain erabiltzen dudan idazkera konprometitua erabiltzeko. Aldaketa itzela izan da: istorioak aldatu dira, pertsona-lagoak dira, zuzenagoak.

• **Literatura konpromisoa da zuretzat?** Produktu eder bat baino gehiago da literatura, nire ustez. Literaturaren bidez garai bateko harridura azaltzen saiatzen naiz ni. Horrek ez du erran nahi literaturak horrelakoa izan behar duela uste

dudanik. Bakoitzak bere bidea bilatu behar du. Mende baten bukaeran eta hurrengoaren hasieran gizakiak sentitzen duen zalantza azaldu nahi dut nire liburuen bidez. Literatura, nire ustez, ezin da garai bateko min eta zalantzetatik at gelditu.

• **Ezkortasuna izan da zure literaturaren ezaugarrietako bat orain arte; *La flecha del miedo*-n, ordea, aldatu egin da zure ikuspegia.** Bai, liburu hori ez da ezkorra, heriotzatik bizitzarako bidaia bat da. Itxaropenaren, alaitasunaren, samurtasunaren aldeko bidaia da. Sinboloz betetako liburu da, gainera.

Salmentekin lortu ez duen arrakasta kritikak eman dio Miguel Sanchez-Ostiz idazle nafarrari. Kritikaren onespén horren adibide, Espainiako kritikaren Sari Nazionala eskuratu zuen Sanchez-Ostizek 1997an, *No existe tal lugar* liburuarekin. Lan hori ez da idazle nafarraren bakarra. *Los papeles del ilusionista* izan zen lehenbizikoa, eta ondoren, besteak beste, *El pasaje de la luna*, *La gran ilusión* (Euskadi literatur saria), *Las pirañas* eta *La caja china* idatzi ditu.

Kritika alde izan duen idazlea

Lehena laster bukatuko du; oraingoz *El corazón de la niebla* izenarekin bataiatu du. Gainera, Biurrun Garmendia eta Jose Angel Pascualek idatzi *El coqueto don Sancho Sánchez* berreskuratu du, eta, horrekin batera, lan horren inguruko *Los barruntos de la botica* izenburuko saiakera plazaratuko du Sanchez-Ostizek, Nafarroako Gobernuaren eskutik. Biurrun Garmendiaren beste liburuxka batek osatzen du bosteko saila.

Istoria bera literaturaren sinbolo da. Hiru panpinen bitartez mintzatzen den sabeliztuna erabili izana idazkeraren sinbolo bat da, beste ahotsen bidez mintzatzen den idazlearen metafora.

• **1995az geroztik Baztanen bizi zara. Bizileku aldaketa horrek izan al du eraginik zure literaturaren aldaketan?** Eragin handia; izaera bera aldatu zait niri han nagoenetik. 1995ean, Baztanera ailegatu nintzenean, amorratuta nengoen *Las Pirañas* nire liburuaren inguruan sortutako jarrerak zirela eta. Baztanen lasaitasuna aurkitu dut. Eskualde horrek nigan izan duen eragina *La flecha del miedo* obran bertan ikus daiteke. Hasieran liburu beldurgarria zen, baina Baztanen bukatu nuen, eta orain hitz jokoz eta txantxaz beteta dago. Baztanen konturatu naiz mundu guztia ez dela gaiztoa. Garai batean gauzen inguruko ikuspegi okerra izan nuen, baina orain lasaia nago.

• **Zure liburuetan Umbria izeneko espazioa irudikatu duzu...** Bai, eta ez da Iruñea, edo, Iruñea bada, ba-

rruan daukadan Iruñea da. Memorian eta irudimenean daukadan historia da, nire biografiako hainbat elementurekin osatua. Pablo Antoñana eta Bernardo Atxagaren loarko Errepublika eta Obaba ere halakoa direla uste dut. Antoñanaren loarko Errepublika da, nire ustez, sakonena, urte asko daramalako idazleak espazio hori garatzen. Andu Lertxundik, dena den, izen berri bat proposatu dit eta hurrengo liburuetan erabiliko dudala uste dut: Unberri, alegia.

• **Pio Barojari buruz ere idatzi duzu. Zer-nolako eragina izan du idazle horrek zure ibilbidean?** Pio Caro Barojak oso ongi azaldu zuen liburu horren aurkezpenean Barojarekin zer gertatzen den: *amanita barojarra* behin probatuz gero, betiko pozoituta gelditzen zara. Liburuak nik Baroja ikusteko eta ulertzeko dudan modua islatzen du, hau da, nire Baroja agertzen du. Aldi berean, omenaldia da. Barojak Iruñean eman zituen urteak aztertzen ditu, batetik, bai eta gerra zibilaren garaiko Baroja ere. Uste dut astakeria asko idatzi dela gai horren inguruan, ez direla saiatu Baroja ulertzen.

• **Alberdaniarekin plazaratu duzu liburu. Nola sortu da zuen arteko elkartana?** Lagun arteko kontua da. 1998an, Donostiako Zinemaldia zela eta, afaltzen ari nintzen Andu Lertxundi, Javier Mina, Inaxio Mujika eta beste hainbatekin, eta Baroja eta Bidasoako Herriari buruzko liburu bat egiteko ideia azaldu nuen. Ideia hori zen, Barojaren Bidasoaldeari buruzko liburu egitea, baina lanean hastean konturatu nintzen herri hori Barojaren, buruan zegoela, batez ere. Alberdaniarekin plazaratzen dudan lehen lana da, baina elkarlanak aurrera jarraituko duela uste dut.